

Logika sozialak eta norberaren ekimena: pertsona-izenak hautatzea Euskal Herrian

Eduardo Apodaka

EHUko Gizarte eta Komunikazioaren Zientzien Fakultateko irakaslea

Artikulu honetan Euskal Herriko izendatze-praktikei buruzko ikerketa bat aurkezten da: jaioberrien izenak hautatzean gurasoei eragiten dieten logika sozialei buruzkoa, hain zuzen. Baina logika horietatik harago, norberaren autonomia ageri da izena hautatzean eta, batez ere, izen hori defendatu behar denean izen-hautatzea arautzen duten erakundeen aurrean.

This article present the results of a study on naming practice in Basque Country: across a research on selection of firts names of newborns, the study shows how the sociological logics influences the parents' choice. However, the investigation focuses on the autonomy of parents and emphasizes the role of resistance to institutional norms and rules about the selection of name.

Sarrera

Artikulu honen xedea izendatze-praktikei (*naming practice* direlakoei) buruzko ikerketa bat aurkeztea da. Izendatze-praktikak gauzei, lekuei eta pertsoneri izena emateko jarduerak dira. Praktika horiek antropologian, soziologian edota hizkuntzalaritzan ikertu dira eta alderdi askotatik ikertu ere: nork ematen duen izena, nola, zein hizkuntzatan, eta abar. Alderdi linguistikoa alde batera utzita, gizarte-zientzietan ere denetarik ikertu da: herri-izenak eta izen ofizialak aurka jartzen dituzten botere-harremanak, edo talde-estatusaren eta norberaren izenaren arteko loturak, edo izenen modak eta tradizioak, edo izen espezializatuak, hots, lanbide eta jarduera zenbaiti lotutako izenak, edo izenak norberaren izaeran edo auto-eragingarritasunaren pertzepzioan ukan dezakeen eragina...

Hemen aurkezten dugun ikerketak haur jaioberrien izenak hautatzean gurasoei eragiten dieten logika sozialak zein diren argitu nahi izan dugu. Ikuspegi bikoitz batetik egin dugu lan hori: nolabait esatearren, hurbilpen “bourdieuzale” batetik egin dugu baina “bourdieuosteko” kritika lagun; alegia, modak, gustuak edota hautatze-irizpideak eragiten dituzten logika sozialak gurasoek euren hautapenetan zelan barneratu eta gauzatu dituzten izan dugu abiapuntu, baina analisiak aurrera egin du norberaren autonomia topatzeko asmoz: subjektuaren ekimen espontaneoak, kalkulu estrategikoa, plangintza erreflexiboa eta ebaluatua, baita “erresistentzia ordinariora” ere, hau da, erresistentzia praktikoa, diskurtsozko baliabiderik gabe berrikuntzak ezarri eta instituzio-mugak gainditzeko gai dena.

Laburbilduz, jendarteko egitura “egituratuak” bere egiten ditu jendeak, prozesu horretatik sortzen da portaera kolektiboa. Baina harago joan behar dugu, egitura “egituratzaileetara” hain zuzen, haietan sortzen baita ekintza estrategikoa (ezagun denez, termino horietan deskribatu zuen Bourdieu-k *habitus* kontzeptua).

Ikerketaren eremuari dagokionez, Euskal Herrian suertatu diren logika sozialak izan ditugu aztergai. Hitz gutxitan, inguruko herrien aldera, egoera berezia dugu gurean: berezia hizkuntza, kultura eta politika arloetan. Egoera berezi horrek logika sozialen joera eta norakoa azaltzen dizkigu, baita, neurri batean edo bestean, “eragile erresistenteak” eta “berritzaileak” eskuduntzen dituen kapitalaren sorrera ere¹.

1. Pertsona-izenen esanahia

Zer esan nahi du Alaitz izenak? Horrelako galderak aski ezagunak ditu euskal izenik duen orok. Zenbat aldiz entzun dugu horrelakorik? Euskal izenek “itzulpena” omen dute, azaldu behar ditugu, zer esan nahi duten azaldu. Gutxitan galdetuko da, ordea, zer esan nahi duten Jose, Maria edo Eustaquio erdal izenek. Izenak dira, besterik ez. Ez dute esanahirik. Baina, hala al da? Izenek ez al dute esanahirik?

Izen propioen esanahia, denotazioa eta konnotazioa barne, eztabaida askoren gaia izan da hizkuntzalaritzan eta semiotikan. John Stuart Mill-ek esan zuen hizkuntza eta kultura gehienetan izenek ez dutela zentzurik, ezta konnotaziorik

1. Ikerketa honako proiektu honetan hasi zen: *Representaciones e imaginarios colectivos en sociedades tecnlogizadas: espacio / tiempo, género / generación*, Euskal Herriko Unibertsitateak diruz lagundurik (1/UPV00002.323-H-16008/2004).

ere, denotazioa baino ez dutela. Geroago Frege-k proposatu zuen izenek zentzu berezi bat dutela: izenaren zentzua erabiltzaileek izen hari lotzen dioten deskripzioaren (munduko gertaera baten deskripzioaren) zentzua bera da.

Horrela planteatu dira eztabaidaren bi aldeak: deskriptibismoak (Frege buru zela) eta antideskriptibismoak (Kripke). Batetik, izenek esanahi deskriptiboa dutela defendatzen duen pentsamendu-ildoak. Bestetik, esanahirik ez, erreferentzia baino ez dutela defendatzen duena. Deskriptibismoaren ustetan, izenek izendatzen dutenaren ezaugarriren bat deskribatzen dute, horixe ematen dute aditzera eta horixe esan nahi dute. Beste aldean, S. Kripke logiko ospetsuak izen propioak “izendatzaile zurrinak” direla defendatu zuen, hau da, “edozein mundu posibletan objektu bera izendatzen dutela”. Horregatik ez digute ezer esaten objektuari buruz, izendatu/erakutsi baino ez dute egiten. Erreferentzia dute, bai; baina ez esanahirik. Ondorioz, inoizko “bataio primigenio” bat jarri behar du antideskriptibismoak izendatzearen hasieran: noizbait, objektuaren ezaugarriak direnak direla ere, izen bat jarri zitaion delako objektu horri eta izen hark jarraitu du objektua izendatzen.

Horrenbestez, izenek ba al dute erreferentziarik? Ez al da erreferentziaren sinesmenean izendatzea izendatzeak dakarren ilusio performatiboaren ordeztartzen? Dirudenez, izendatzen duguna, izena duenez, munduko egoera “bat” dela, “zerbait iraunkorra” dela sinesten dugu inozoki, edo euskaraz esan ohi zenez: izenak izana dakar.

Baina, bestaldetik, zergatik deituko diogu zerbaiti izen bera erabiliz ez badago izenari dagokion izanik, izenak ez badu objektua eta izena uztar ditzakeen esanahirik? Ezaugarri deskriptibo aldakorretatik kanpo, zein da erreferentzearen identitatea?

Horrelako galderak direla-eta, S. Žižek-ek honako ideia hau proposatzen digu: «Ahaztu egiten dena, antideskriptibismoaren bertsio estandarrean gutxienik, zera da: objektu baten identitatearen bermea, identitate hori gertaerek ukatzen duten egoera guztietan —ezaugarri deskriptibo guztiak aldatu direnetan— izendatzearen atzeraeragina da: izena da, adierazlea da, objektuaren identitatearen euskarria (...) izendatzeak atzera eraginez eratzen du erreferentzia» (Žižek, 2003: 134). Adierazleak eratzen du, ikuspegi antiesentzialista horretatik (hots, *berezko izana* ukatzen duen ikuspegi horretatik) objektuaren identitatea. Izenak dakar izana; alegia, berezko izanak edo “kanpoko errealitateak” ez du izenik inposatzen. Izena erabat konbentzionala da, ez dago inolako behar ontologikorik ezer izendatzean. Izendatzea, beraz, errealitatea sailkatzea, antolatzea, eratzea da².

Gauza bera gertatzen da pertsonen izen propioen kasuan. Norbanakoak izena behar du bat eta bera izateko: bereizgarri eta identifikagarria izateko. Izenak ez du esan nahi “banako hau”; banakoa izendatzen du eta izendatuz, izena emanez, era iraunkor eta zurrunean eginez gero, banakoa eratzen du. Horrek azaltzen du zergatik doazen batera indibidualismoa eta izendatze zurruna eta adiera bakarrekoa.

2. Ez dugu esan sortzea. Izena emanez eratzen dugunaren aurreizatea ez dugu zalantza jartzen. Izan bada, izate zabal batean, jendeak bere hitzezko eta gogozko antolakuntzaz izatea mugatu eta “izan badiren gauzak” eratzen ditu.

Bourdieu-k, *Biografi ilusioa* testuan, honela azaltzen digu ikuspuntu hori: «Instituzioa den aldetik, izen propioa denbora eta espaziotik kanpo ari da, une eta lekuen aldaketatik kanpo: horri esker, izendatutako banakoek, aldaketa biologiko eta sozial guztien eraginetik kanpo, izen bera izango dute. Horrela, lortzen da jendarteko ordenak ezartzen duen betebeharrak: identitatea, hau da, “norberatasuna” edo *constantia sibi*».

Horrexek azaltzen digu, Bourdieu-ren iritziz, izenak izendatzen duen horri buruzko informaziorik ez ekartzea. Izena label hutsa da, haren zeregin (psikologiko eta sozial) bakarra banakotasun- eta iraunkortasun-ilusioa sustatzea da, norberatasunaren “abstrakzio itzel hori” sustatzea. Hala ere, Gizarte Psikologian esaterako, urrun gaude “label”, eta *labelling*-a, esanahirik gabeko jendarte-ekintza direla onartzetik. Bistan da, izena, edozein izen, adierazle hutsa da: ez du esanahirik, ez du ezer deskribatzen, ez berez. Alaitz izenak ez du ezer esaten. Baina erakutsi eta adierazi egiten du; eta horrela, gu geu gara izenari esanahia ematen diogunok: guk adierazten dugu zerbait, guk ematen dugu aditzera zer edo zer, guk esan nahi dugu zerbait... Eta beti, norbaiti eta noizbait.

Bistakoa iruditu arren, P. F. Strawson-ek (1976) defendatu behar izan zuen, B. Russell-en iritziairen kontra, adierazpenek edo adierazleek ez dutela ezer adierazten, hiztunak direla elkarri zerbait adierazten diotenak. Baina, dena den, erreferentearen kasuan ikusi dugun antiesentzialismo bera ezarri ahal zaio adierazleari. Horraino heltzen da adierazlearen ilusio performatiboa. Izan ere, /Alaitz/ ez da adierazle *bat*, *adierazte-jarduera* bat baizik: ez da inon /Alaitz/ forma hori. Badena izendatzea da, alegia: /Alaitz/ esatea, idaztea, grabatzea, tekleatzea... Hitz gutxitan, inor, inorentzat edo zerbaitetarako, inon eta inoiz horrela izendatzea³.

Hiztunok ematen diogu “dena delakoari” esanahia eta horrela zeinu bihurtu. Esanahia ematea ez da aukera bat, etengabe eta nahitaez egin behar dugun lana baizik. Beste kontu bat da zeri eta nola eman esanahi bat edo beste, baina ematea bera ezinbestekoa dugu jendeok. Zentzudun mundu batean bizi beharra dugu, zentzukide den jendearekin: guk eraiki behar dugu *zentzukidetza*.

Ez dago izendatzearen aurretik erreferentzia neutrorik, berezko izan hutsik, eta ondoren, atzeraeraginez, erreferentzia (kasu honetan, pertsona) ez da esanahia. Izenaren esanahia izendatzearen ondorioetan topatuko dugu, hau da, adierazlea

3. Hizkuntzalaritzan *type* eta *token* bereizten dira, hau da, zeinu tipoak eta zeinu aleak. Zeinu ale bakoitza adierazpen bakarra eta errepikaezina da, zeinu tipoak, ordea, entitate abstraktuak dira, haien bitartez zenbait ale batzen ditugu antz fisikoagatik, eta, jakina, jendarteko konbentzioengatik (/Alaitz/ zeinu tipoari lotzen zaizkion esakerak, idatziak, ikonoak eta abar adierazle bera direla konbentzio hutsa da) (Acero, Bustos y Quesada, 1982: 36). Hori da, hain zuzen, zeinu bat eratzeke egin beharreko lehendabiziko abstrakzioa: zeinu tipo batera biltzen diren esakune desberdin horiek guztiak, atzeraeraginez, zeinu horien ale, adierazpen edo agerpentzat jotzen ditugu. Abstrakzio hori egin ahal izateko, adierazle tipo batera batu dira esakuneak, bada, adierazle hori ez da inoiz zentzu eta esanahirik gabea. Esakuneak adierazle tipo *baten agerpen* desberdinak direla adosten dugu, hau da, zerbait esan nahi duen zerbait (“hitza”, adibidez) agertzeke erak. Adierazleek esanahi bat edo beste har badezakete ere, ez daude esanahiz erabat hutsik. Hala ere, adierazle izateko gai den materia gordin bat topatu ahal dugu: edozeri esanarazi ahal diogu nahi duguna, edozer, izan daiteke, esaterako /Alaitz/ zeinu tipoaren agerpena eta alea (askotan ahazten dugu, esaterako ahozkoaren eta idatzizkoaren artean dagoen lotura konbentzio hutsa dela).

egitearen eta erabiltzearen ondorioetan. Wittgenstein-en aholkuari jarraiki, erabileraz galdetu beharra dugu: zer ondorio du, nola, noiz, norentzat, zein testuinguruan... /Alaitz/ esateak? Horra hor “izenaren esanahia.”

Arestian ikusi bezala, Bourdieu-ren ustez, pertsona-izenek ez dute erreferentziarik, aitzitik, ustezko erreferentzia baten “(nor)beratasuna” sortu nahi dugu haiek erabiliz, hartara izugarritzko abstrakzio bat dugu bide: esentzia iraunkor eta egonkor bat irudikatzeke, aldaketa guztiak baztertu behar ditugu. Hortaz, “erreferentziaren gezurra” deritzon iritzi-ildoarekin egin dugu topo (Eco, 1977). Eco-ren hitzetan “erreferentziaren gezur” hori hauxe da: edozein hitzen esanahia munduko egoera bat dela sinestea. Kontrako usteak dioenez, esanahiaren atzean ez dago munduaren edo errealtate objektiboaren ezer, esanahia ez da “hor kanpoan”, hitzetatik harago, den ezer, esanahia hitzetatik hitzetara doa.

Esanahi bat ulertu behar dugunean adierazle-kate batean sartzen gara: adierazle batek aurreko adierazlearen esanahia argitzen digu, amaigabeko kate batean. Zentzu horretan erabili zituen Barthes-ek (1972) “esanahiaren bigarren maila” edo “mito” kontzeptuak: adierazle batetik zabalitzen den konnotazio-unibertsoak adierazle hori esanahi edo adiera bakar bati, hau da, denotazio bati lotuta egotetik askatzen du.

Horrela, bada, izenen esanahia funtsezko betekizun semiotikoen argitara ulertu ahal dugu: konnotazioaren eta denotazioaren argitara. Eco-k dioen moduan, izen batek, /Napoleón/ izenak esaterako, pertsona ezagunen eremuan kokapen bat denotatzearekin batera, “Napoleón” kultur unitatearen hainbat osagai semantiko konnotatzen ditu (Eco, 1974: 99). Ezagutzen ez dudana pertsona baten izenak ez du ezer denotatzen, baina oso aberatsa izan daiteke konnotazioetan. Konnotazioa, Eco-k dio, hartzailerearen gogoan adierazle batek sorrarazten dituen kultur unitateen multzoa baino ez da (1974: 101).

Adierazleak interpretaziora irekita daude. Prest zentzu eta adiera ezberdinak hartzeko. Horregatik, “esanahia” zer edo zeri deitzekotan, adierazle batek har ditzakeen adiera guztien multzoari deitu beharko genioke. Hala ere, jende-komunitateak ondo arduratu dira adierazle eta adiera arteko loturak instituzionalizatzeari eta naturalizatzeari; alegia, adierazle bati esanahi bat eta bakarra lotzen saiatu dira, konnotazio guztiak bakar batera murrizten, horrela sortzen baita denotazioa. Eta horrela ere, interpretazio-komunitate batek bere errealtatea eratzen du.

Adierazpen sorta bat zena, adierazle bihurtzen da sorta hori zentzu batez janzten dugunean, adierazpen sorta, beraz, zeinu bihurtzen da eta anbigutasuna murrizten da “errealtate” bakar bat seinalatzeko. Kodeak *zeinugintza* horren jarduera eta emaitza araugilea baino ez dira. Eta, gogoan izan, kodeak indar sozialak dira (Eco, 1977). Horregatik, esanahiaren eta zentzuaren arazoa kodeen eragintza historikora eramana behar dugu. Eta, ondorioz, esanahiaren auzia botere-harremanen argitara ulertu behar dugu: nork erabaki ahal du zein den hitz baten arauzko forma eta arauzko adiera? Nork erabaki ahal du zer ulertu behar dugun hitz bat erabiltzean? (Putnam, 1975).

Laburbilduz, izendatze-jarduerak eta pertsona-izenak zertan diren ulertzeko (izena eta izena erabiltzea bereizterik badago) erreferentziaren paradigmatik irten behar dugu. Denotazio zurrunetatik ihes egin behar dugu. Esanahiari buruzko bes-telako paradigma behar dugu; paradigma horrek kodeak eta “ondare adieraz-korrak” sortzeari eta erabiltzeari eragiten dioten harremanetan eta baldintzetan jarri behar du esanahia. Izenak balio-zeinuak dira, ondare sinbolikoak, inolaz ere materia huts edo izendatze neutroak.

Izenek, hortaz, zerbait *esan nahi* dute: zerbait esaten digute izendunaz, zerbait izena hautatu duenaz, zerbait izen bat balioesten edo gaitzesten duenaz, zerbait jasotako izena eraldatu edo ostendu egin duenaz. Bistan da, izenak ez du pertsona adierazten, ez du “pertsona bera” esan nahi. Ez du pertsona deskribatzen, ez du nolakoa den esaten... Esanahia ez baitago izenean bertan, izena jendartean erabiltzean baizik. Eta ondorioz, izen bat edo beste erabiltzeak, modu batez edo bestez erabiltzeak, pertsonaren ezaugarri sozialei buruz zerbait esango digu; ez da gauza bera, esate baterako, Jon, Jontxu, Juan edo Jon Jauna...

Horrez gain, izenak finkatu egiten du: zentzu-eremu batean (eremu semantiko edo sinboliko edo kultural batean) hainbat kokapen biltzen ditu, jendarteko harreman-eremuetako hainbat harreman biltzen ditu, guztiak “beratasun iraunkor” baten gisan. Horrela, pertsona-izenek pertsonaren norberatasuna eta banakota-suna sustatzen dute. Erakunde politiko eta administratiboen erregistroa findu dute nahasmendurik gerta ez dadin: bakoitza nor den argi ageri dadin. Kode bati esker, inor ez da beste inorekin nahastuta izango, administratu behar diren mendeko guztiak ondo identifikatuak izango dira.

Baina ez da nahikoa izan Elizarengandik jasotako izendatzearekin (ponte-izena, argi dago, izen kristaua da, bataio-pontean hartutako izen horri geroago irizpide administratibo bat ezarri zioten: aitaren izena, “patronimikoa” edo abazena). Gaur egungo administrazioek zenbaki bana eman diete administrazioei. Ez dugu zenbaki hori hautatzen, ez du inongo balio sozialik, ez jendarteko truke-baliorik, ez jendarteko balio sinbolikorik. Pertsona-izenek, ostera, karga handia da-ramate soinean: karga afektiboa dute aski, konnotazio oparo, zentzu ezagun edo antzemandako asko, erreferentzia inplizitu franko... eta balioa dute, eta esanahia.

Debe señalarse también como origen de anomalías registrales la morbosa exacerbación de algunas provincias del sentimiento regionalista, que llevó a determinados registros buen número de nombres, que no solamente están expresados en un idioma distinto al oficial castellano, sino que extrañan una *significación* contraria a la unidad de la patria Tal como ocurre en las Vascongadas, por ejemplo con los nombres de Iñaki, Kepa, Koldobika y otros que denuncian indiscutible significación separatista (Orden del Ministerio de Justicia, 18 de mayo de 1938).

2. Izenen balio sinbolikoa

Ikerketa honek izendatze-praktikak aztertu ditu Bourdieu-ren “ondare sinboliko-merkatuaren” ikuspegitik. Izan ere, izendatze-praktiketan dinamika berezi bat izaten da: batetik, gizarte-indar egituratzaileen eragina dugu, bestetik, eragile

berritzaile eta erresistenteak ditugu, nonbait, berenaz eta beren baitarik ari diren eragileak. Bien arteko talka eta tentsioari begiratuko diogu⁴.

Bourdieu-ren “konstruktibismo estrukturalistan” eragile sozialak ez dira indar mekanikoen eragin hutsez dabiltzan partikulak, ez dira kanpoko kausen eragin hutsez aritzen diren gogo gabeko gorpuzkinak; ez dira, hala ere, arrazoi ezagun eta argien arabera beren burua jakitez eta artez gidatzen duten subjektuak. Ikuspuntu horretatik, eragile sozialak “zentzu edo sen praktikoa” duten eragileak baino ez dira: hautatzeko irizpide zenbait, gustu zenbait, nahi eta zaletasun zenbait dituzten eragileak dira, haien arabera beren burua gidatzen dute, askotan kausak eta arrazoi “egituratzaileak” zeintzuk diren jakin barik, baina jendarteko jokorako sen praktikoa ondo barneraturik. Sen hori, funtsean, ekiteko eta pentsatzeko egitura zenbait baino ez da, Bourdieu-k *habitus* deritzona.

Habitus delakoa atondura batzuen multzo sistemikoa da, hau da, modu jakin batean sentitzeko, pentsatzeko eta ekiteko jendeak dituen aurreatondurak, joerak edo jauginak. Gizarteratu ahala barneratu ditugu, geure egin ditugu eta neurri batean edo bestean egonkortu. *Habitusak*, beraz, jendarteko harremanetan “egituratutako egiturak” dira (sentitzeko, pentsatzeko eta jarduteko egiturak), nork bere eginez gero, haren sentiera, pentsaera eta jarduera egituratuko dituzte, alegia, “egitura egituratzaileak” izango dira (Bourdieu, 1980: 175).

Horrez gain, *habitusa* da praktika zentzu praktikoz janzen duena. *Habitusean* dagoelako praktikaren ekonomia antolatzen duen zentzumen edo sen praktikoa. Esan liteke eragilea “*habitusera* jaio dela” edo “*habitusak* duela subjektua”; gure gorpuzkerak (*hexis*) eta gure jarrera moralak (*ethos*) *habitusak* dira. Nolabait, *habitusa* “norbanako bihurtutako jendarteko inkontzientea” da. Horrenbestez, *habitusa* da praktikaren gidaria, baina ez da soilik “programa” bat, “kapitala” ere bada. Ez dago gizarte-nortasunik hainbat baliabidez osatua ez denik, esan nahi baita, gizarte-nortasun guztiek badituzte norberaren interesen arabera helburuak lortzeko baliabideak; berdin da zein diren interesak eta helburuak. *Habitusak* kapital bat ematen dio subjektuari: *habitusak* nolakoak, kapitalak halakoak (Dubet & Martucelli, 1998: 76)⁵.

4. Izendatzearen gaira heltzeko bide teoriko asko egon da. Fenomenoa bera aski poliedrikoa da. Milaka aurpegi ditu. Hurbilpen-saio horietan Antropologiarena izan da nabarmenduena (kultur dibertsitate, izendatzeko erak, izengintza ezberdinak, pertsona-izenaren balentzia edo zentzua, bataio-erritual mistikoak edota izenen jendarte-eginkizunak...). Ezin ahaztu ikerketa haietan Mauss (1960), Evans-Pritchard (1971) edo Lévi-Strauss (1964). Lan horiek izendatze-praktiken eta pertsonaren talde barneko estatusaren arteko loturak aski ikertu dituzte; batez ere, izendatzearen eta pasaera-erritualen artekoak (jaiotzak, helduarora pasatzeko errituak, talde bereizi batera sartzeko errituak, ezkontzek, heriotzak berak ere, guztiek dute bataio bereizgarri bat lagun). Bestalde, izendatzea eta izendatzen duen subjektua botere-harremanen eta jendarteko hierarkien erakusle dira: izenduna izatea eta izena eman ahal izatea boteretsuen eskumenak dira. Philippe Besnard (1979) izan da, dakigun neurrian, pertsona-izenak kontsumoko ondare sinboliko gisa aztertu dituen lehenengoa; ikusi, halaber, Bozon, M., 1987, “Histoire et sociologique d'un bien symbolique, le prénom”.

5. Hala ere, Bourdieu-ren lanak *habitusaren* alderdi sozialena (egituratzailea eta menderatzailea) nabarmendu du, singularitasun-ilusioa eraiste aldera: barnekoan kanpoko agerraraziz, geure baitan jendartekoa erakutsiz, ustez bakarria denaren arrunta ikusaraziz (Bourdieu, 1980: 40).

Kapital kontzeptuaren erabilera azaltzeko kontuan hartu behar dugu Bourdieu-k “praktika ororen ekonomia” eraiki nahi zuela. Horrelako ekonomia batek kontuan hartu behar ditu jendarteko balio mota guztiak, ez soilik balio ekonomikoa. Praktiken logika, bistan da, ez da bakarrik logika ekonomikoa, alderantziz, diskurtso- eta ekintza-eremu bereziak atontzen dituzten logika asko ditugu. Logika horiek ezartzen dute eremu bakoitzean zerk duen balio, zer den kapitala eta zer ez.

Ondare sinbolikoa, hortaz, edozer izan daiteke, betiere eremu batean balioa arautzen duen logikak balio hori ematen badio. Horregatik, ondare sinbolikoaren balioa ezagutzeko eremuaren logika bera ezagutu behar dugu, jakin behar dugu zeren arabera duen balioa, bestela ez diogu inongo baliorik “aitortuko”. Behar dugu, hitz batean, ondare sinbolikoa sortu duen kulturaren *code de chiffrement*, hots, ulertze-kodea. Kodea pertzepzio-kategoria zenbaitzuen multzoa da, zerbaiten balioa ezagutarazten edo agerrarazten diguten kognizio-egitura zenbaiten multzoa.

Jendarteko eremu guztiak barne-borroka eta tentsio ugari dute, eremuen arteko harremanak ere nahikoak dira gatazkatsuak. Zentzu batean, eremu bat ulertze-eta interpretatze-erkidegoa da, diskurtso- eta ekintza-erkidegoa den bezala; baina bakarrik zentzu batean; izan ere, eremuko eragile onartuek ere norgehiagoka eta lehian dihardute nagusitasuna lortze aldera.

Izendatzearen kasuan ere *habitusak* gidatzen du gustua eta nahia. Izan bada izendatzea (izena hautatzea eta izena erabiltzea) arautzen duen logika sozial bat. Baina aldi berean, izen batzuk hautatuz eta erabiliz, bestetarik ahaztuz eta zokoratuz, jendeak jendartea egituratzen du, hau da, izendatzea jendartea egituratzeko jarduera bihurtzen du. Horrez gain, izendatze-praktikek gizarte-taldeen arteko bereizketak eta aldeak indartzen dituzte. Bourdieu-k azaldu legez, talde horiek, zeinek bere *habitusari* jarraituz, interpretazio-kode eta irizpide ezberdinak erabiliz “balio” ezberdinak onesten dituzte. Ezin dugu ahaztu baliodun *habitusa* lortzea, alegia, kapitala lortzea, eremuaren menderakuntza-egiturek zedarritzen dutela. Bestela, mugatu barik, ez litzateke ez balioduna, ez kapitala, izango. Menderakuntza, horren arabera, lortu ezin dugun kapital baten mendean egotea da. Onartzen dugu kapital haren balioa baina ezin dugu lortu: haren mendean gaude. Kapitala, bistan da, ez da airean egongo, norbaiten eskuetan baizik, hura da menderatzailea. Onartzen diogu, onartzen zaio eremuan, berak duen eta besteek ez duten zerbaiten balioa.

Ba al da antzekorik izenen kasuan? Bai; bada izenetan berdin partekatzen ez den kapital bat, eta badira lehian edo zein bere aldetik dabilzan kapitalak. Kapital horiek, hasiera batean izendatze-kode edo izendatze-kultura bereziak baino ez dira, erkideek lehenetsi dituzten eta kanpokoei balioztarazi nahi dizkieten kodeak.

Izendatzeko interpretazio-kodeen banaketa eta, ondorioz, izen batzuk balioesteko eta kapital bihurtzeko irizpideen aniztasuna eta hierarkia bi ardatzetan azaldu ahal ditugu (Bourdieu-ren *La Distinction* lanari jarraituko diogu hemen):

- Izenek efektua dute: zenbat eta nabarmenagoak, orduan eta efektu handiagoa, zenbat eta arrotzagoak edo ohiko izenetatik urrunagoak izan, orduan eta efektu handiagoa. Baina efektu hori positiboa edo negatiboa izan daiteke, estimua edo arbuioa, atxikimendua edo mespretxua... Izen berberak ere

modu askotara ulertu ahal dira; izan ere, izen baten balioa ezagutzeko zein gizarte-eremutan, zein zentzu-komunitatetan eta zein koderen arabera sortu den jakin behar dugu.

- Izenek gastua dute. Philippe Besnard-ek esan zuen izena nahitaezko ondare sinbolikoa dela (guztiok izena behar dugu izan) baina dohainik jasotzen dugula (Besnard, 1979). Hala ere, izendatzeak badu kostu bat: izena, *intentio actoris* delakoaren arabera, azaltzen eta ulertarazten digun kodea eskuratzeko behar den ahalegina eta inbertsioa.

Ikus ditzagun adibide batzuk (1. taulan). Gastu gutxiko izen bat kode orokorreko izena izan ohi da; guztion eskueran dagoen kode batek ematen digu izenaren zentzua. Kode horrek, unibertetsala den neurrian, berezko balio eskasa du. Normalean, gizarteratze zabalean edo eguneroko bizimodu arruntean eskuratzen ditugu halako kodeak, hau da, “kultur ekoizpen-eremu orokor eta masiboetan”. Kode horiek “gizarte osoaren” kultura gainordenatukoak izan ohi dira (erakundeek sustatutako kultura ofizialekoak) edo masa-hedabideek bultzatutako kultur moldekoak. Biak ala biak hedapen zabaleko eta inbertsio txikiko erreferentziak. Adibide bi: Juan eta Beckham. Lehendabizikoa efektu handirik gabeko izena da, batere inpakturik ez duena; izan ere, joera soziokultural nagusiek naturalizatu eta normaldu baitute. Bigarrena, ordea, inpaktu handikoa da, nabarmena bezain ezaguna: guztiok dakigu zein diren izenaren konnotazio positiboak eta negatiboak (gizon gaztea, ederra, aberatsa, ospetsua...) Ez da inolako ahalegin berezirik egin behar, ez lan kognitibo nekezik, izen hori jarri dutenen asmoa zein izan den antzemateko. Berehala ulertu ahal dugu zer *adierazi nahi* diguten izen horren bidez⁶.

Bestaldetik, gastu handiko bi izen: Diana eta Belisana. Biek hartzen dute zentzua eta balioa kode mugatu batetik, inbertsio handia eskatzen digun kode batetik. Kasu bietan izenaren zentzua eta balioa azalduko digun kodea lortzeko kultura bereziz eta gaitasun hermeneutikoz jantzi behar dugu geure burua. Diana, esaterako, ilargi-jainkosaren izena da, jainkosa ehiztariaren izena, Ama Jainkosa baten gurtzeari buruzko konnotazio mitikoak dakartzan izena. Belisana izen zelta da, haren kutsu arkaiko eta etnikoari esker balio sinboliko handia du. Baina, bistan da, Diana Lady Di haren izen ezaguna da eta bada ere izen arrunt askoa eta ondo hedatua. Hargatik, haren inpaktua hutsaren hurrengoa da. Soilik azalpen berezi batez jakingo genuke Diana hautatu duenaren asmoak zerikusirik duela antzinako jainkosa harekin. Bestela, pentsatuko dugu izen arrunt eta pop kulturaren emaria dela. Belisanaren kasua bestelakoa da, argi dago inpaktu handia duela, eta inpaktu hori nahita bilatua dela: jendea harrituko du eta, askotan ere, jakin-mina piztuko: Zer da izen hori? Zer esan nahi du? Nondik agertu da?

6. Honek beronek azaltzen du ospedun marka edo objektuen izenak pertsona-izen gisan erabiltzea. Gure kultura onomastikoaren argitara aldrebesa izan daitezkeen arren, Ameriketako arruntak dira *Armani*, *Canon*, *Timberland*, *Jaguar* eta gisa horretako pertsona-izenak.

	Gastu minimoa	Gastu maximoa
Efektu minimoa	Juan	Diana
Efektu maximoa	Beckham	Belisana

1. taula. Gastua eta efektua

Hala ere, Belisana-k eta Beckham-ek balioa gal dezakete. Hedatuaz eta zabalduaz, indarra gal dezakete: zenbat eta arrakasta handiagoa izen-hautaketetan, orduan eta inpaktu gutxiago eragingo eta orduan eta urrunago egongo dira jatorrizko erreferentzia eta zentzuetatik. Horrela bada, Belisana Diana bezain arrunta bilaka daiteke. Baten batek aukera lezake izena haren zentzu mugatu eta berezian, jatorri zeltari atxikirik, baina gehienek zentzu arruntez hautatuko lukete, hau da, modan dagoelako, pertsona ospetsu baten izena delako, berria delako...

Auzi honetan, dena den, guztia ez da kantitatea: inpaktuaren tamaina edo indarra kodearen ondorioa da eta kode bakar bat ez, kode asko ditugu eta gainera elkar joka ari diren kodeak: batzuek besteek baino maila eta balio handiagoa dute gizartean (edo gizarte-talde batentzat).

Pertsona-izen batzuk erabiltzea eta beste batzuk zokoratzea, ondare sinboliko guztiak bezala, gizarte-eremuaren logikaren arabera azaldu behar dugu, kasu honetan kontsumo-eremu baten logikaren arabera, modarekin parekatu ahal dugun eremua (Lieberson, 2001). Baina ez dugu gizarte-eremu bakarrik, ezta moda orokorrik ere. Kontsumoa zatikaturik dago: kontsumo-eremu eta logika asko dugu. Are gehiago, izenak familia eta erlijio-erakundeen mendeko “ekonomia orokor” baten objektu izatetik, “kontsumitzailearen gustuaren araberrako” objektu izatera iragan diren garai honetan.

3. Pertsona-izenak Euskal Herrian: historia eta testuingurua

Euskal izenen historia euskararen historiaren parte da, eta euskarak Euskal Herrian mintzatu diren erdarekin izan dituen harremanen historiaren zati bat. Hau da, oso estatus ezberdina izan duten hizkuntzen arteko botere- eta truke-harremanen alderdi bat. Euskara, ezagun denez, herri-hizkuntza izan da; botere-zirkulu eta erakundeetatik kanpo bizi izan da gehienbat, behinik behin Modernitatean. Euskarazko izenen historia, hortaz, botere eskaseko hizkuntza baten historiaren zati da. Hainbat unetan laburtu ahal da historia hori (Gorrotxategi, 2000):

- Trentoko Kontzilioak (XVI. mendean) euskal izenen erabilera arrunta eten zuen, umeak santu-izenez bataiatu behar zirela agindu baitzuen. Horrela desagertu ziren Erdi Aroan erabat arrunt izandako izen asko: Gartzea, Eneko, Hobeko, Andere, eta abar. Baten batek iraun du abizen gisan.
- XIX. mendean Euskal abertzaletasunak berrasmatu zuen bertoko izen-tradizioa, baina ez zuen egin santu-izendegia inposatu baino lehenagoko izenak berpiztuz, baizik eta izendegi hori “euskaldunduz” (literaturagile erro-

mantikoeak ere “kondairako” hainbat izen eman zuten: Aitor, Amaia...). Santuen izenak euskalduntzeko lan horretako buru izan zen Sabino Aranak eraldaketa fonetikoaren tradizioarekin hautsi eta izen berri-berriak asmatu zituen. Izen haiek asmatzeko zenbait arau edo baliabide proposatu zituen, batzuk oraindik orain oso erabiliak, esaterako: *-a* eta *-ne* gizonezko eta emakumezkoen izenen atzizkiak, hurrenez hurren. Horrela, bada, euskaldunek Josepha Joxepa emanda bazuten ere, Aranak Josebe proposatu zuen. Aranak eta haren eskolakoek asmatutako izen batzuk oso arrakastatsuak izan dira, beste asko, ordea, ez dira batere zabaldu. Hedatu direnek askotan kutsu aranatarra edo abertzalea galdu dute: Gorka, Iñaki, Edurne, Joseba, Gotzone... Aranaren antipoda politikoetan dabilzan batzuen izenak dira, eta dirudenez, ez dute aldatzeko ez asmorik, ez beharrik ere.

- Sabino Aranaren izendegi berria erabiltzea 1907an Gasteizko apezpikuak debekatu bazuen ere, Vatikanok zuzenean esku hartu eta baimendu zuen haren erabilera ofiziala. 1932an, Errepublikak euskal izen guztiak erabiltzea legeztatu zuen. Sei urte geroago, Francoren diktadurak espainierazkoak ez beste izen guztiak debekatu zituen. Debeku hark bazituen salbuespenkasuak: espainierazko ez ziren hainbat toponimo Andra Mariaren izenak zirenez onartu zituzten baina espainierazko ortografia erabilita (Aranzazu, Leyre, Iciar...) Debekua atzeraeraginez ezarri zen. Hilerrietan, erregistroetan... izen separatistak eta gorriak ezabatu eta aldatu zituzten. Barakaldon, esate baterako, 89 umeri aldatu zieten izena: Lenin, Libertad, Amor, Boreal... eta mota horretako izen guztiak desagerrarazi zituzten (Gorrotxategi, 2007).
- 1957an frankismoaren legeriak espainierazko “itzulpenik” ez zuten izenak onartu zituen. Literaturako eta Andra Marien hainbat izen berreskuratu ziren horrela. Baina onespren horrek uste gabeko ondorio bat izan zuen, nolabait, iraultza bat ekarri zion euskal izengintzari. 1972an Jose Maria Satrustegik *Euskal Izendegia, Nomenclátor Vasco* argitaratu zuen. Izatez Euskaltzaindiaren enkargu baten emaitza zen liburua. Hartara bildu zituen Erdi Aroko agiritan topatu ahal izan zituen izen guzti-guztiak, mitologian eta literaturan inoiz agertutako izen oro eta, zelan ez, Herrian zehar izan diren eta diren Andra Mari guztien izenak. Azken kasu horretan herri askoren izenak sartu zituen Satrustegik, Andra Mari famaturik edo bat ere ez zuten herriak izanik ere (ezagun da Ainhoa herriak ez duela izan izen bereko Andra Maririk, bai ostera herri gaineko muino batean dagoen Arantzazu izeneko ermitak, baina Satrustegik ez zuen arazorik izan Ainhoa proposatzeko eta izenak izugarritzako hedapena izan du harrezkero). Esan bezala, Satrustegiren lanak irauli egin zuen euskal izendegia eta handik geroko euskal izengintza osoa.
- 1977an espainiar estatuko hizkuntza guztietako izenak onartu ziren legez. Horrekin batera, lehenago ezarritako izenen “itzulpena” baimendu zen. Ordutik hona euskal izenak erruz hedatu dira: inoiz zaharrak berreskuratuz eta inoiz berriak asmatuz egin da hedapen hori. Ez da, hala ere, goitizena edo izen bikoitzak erabiltzeko ohitura desagertu. Askok dira erdal izen ofiziala dutela, euskal izena darabiltenak. Ohikoa da izen batzuk edo izen

baten hainbat aldaera erabiltzea: izen eta abizen ofizialak, herri-aldaerak, goitzenak... batzuetan euskaraz, bestetan erdaraz⁷.

4. Izena hautatzea: logika sozialetatik norberaren ekimenera

Zeintzuk dira seme-alaben izenak hautatzeari eragiten dioten gizarte-logikak? Zein da erabaki hori zertzen duen habitusa? Eta zeintzuk dira, horrenbestez, hautatutako izenen balioa eta zentzua? Hemen hiru logika nabarmenduko ditugu, hirurak gauzatzen dituzten ondorio psikosozialen haritik izendatuko ditugu, latinezko *gen-* sustraia erabiliz: generoaren, generazioaren eta gentilizioaren logikak.

4.1. Generoa

Inguru honetako estatuak, Elizaren tradizio onomastikoari jarraituz, gizonetzkoen eta emakumezkoen izenak legez bereizi dituzte. Generoen arteko nahasketa ekidin behar da. «Sexuen arteko nahasketa» dio Erregistro Zibilaren lege espainiarrak. Ez da hori «izena aukeratzeko askatasunari» lege horrek jarri dion muga bakarra: ezin dira jarri nahi beste izen (izen konposatu bat baino ezin da jarri eta sinpleetan bi dira gehieneko muga), ezin dira anai-arrebak izen beraz erregistratu (ezta beste hizkuntza batean izanda ere), ezin da irain edo iseka izan daitekeen izenik jarri (galarazita daude «objektiboki pertsona kaltetzen duten izenak»). Kasu horretan arazoa «objektibotasun» horretan datza, nor da nor izen bat kaltegarria dela erabakitzeke? Erregistroa? Gurasoak? Argi dago, botere-kontua baino ez da. Zentzu berean, debekatuta daude izenen aldaera hipokoristikoak, txikigarriak, familiarrak edo lagunartekoak. Hala ere, herriaren erabilerak izen-aldaera hori jatorrizko izenetik askatu edo guztiz bereizi duela frogatuz gero, Erregistroak «izen berria» onartzen du, horrela onartu dira Lola, Sandra eta «substantzia eta autonomia» lortu duten beste izen asko.

Erregistroei erreklamazioka eta kexaka eraginez eta erregistro ofizial horiek baztertzeko dituzten herri-erabilerei eutsiz, ari da izengintza berritzen eta eraldatzen. Prozesu horretan jendea izendatzearen subjektu aktiboa, berenaz diharduen subjektu eragilea, bilakatzen da; ezarian erakundeen mugak eta murrizketak gainditzen ditu jendeak. Ez dago horren argi, ostera, gizarte-eraginaren indarretatik ihes egitea lortzen duen⁸.

Esan bezala, generoaren kasuan Erregistroaren Legeak argi eta garbi debekatu ditu «sexuak» nahastea edo argi ez bereiztea ekar lezaketen izenak. Debekuak debeku, oso arruntak izan dira halakoak. Gaztelaniaz, esaterako, Trinidad, Cruz edo Alba izen anbiguoak aski erabili dira. Baina oso tematia da legegilea gai honetan; orain dela gutxi onartu den Sexu Identitatearen Eskubideari buruzko

7. Ez dugu jorratu izenen aldaeren normalizazioa, hizkuntzen normalizazioaren alderdia dena duda barik. Argi dago euskal izenen hedapena euskararen normalizazioarekin batera doala. Argitzeke dugu, ostera, zer gertatzen den abizenekin, zein den abizenak era normalduan ofizialtzeko eta erabiltzeko arduragabekeriaren arrazoia. Paradoxikoak dira, ortografia aldetik gutxienik, baina arruntak *Argine Aguirre* edo *Arantza Ocaranza* moduko izen-abizenak.

8. Esku-hartze eta mugak gainditze horren sintoma bat da Erregistroak izen abstraktuak edota fantasiako izenak onartu izana. Literaturako, mitoetako edo toponimia zabaleko izenak onartu dira modu horretan. Legeak dionez «kontuan hartu behar da gure herriaren errealitate sozial, kultural eta politikoa», baina kasu guzietan Erregistro Zibilak du azken hitza.

Legeak ere sexu-bereizketa anbiguotasunik gabe ezarri nahi du: sexu-identitatea dena dela ere, erregistroan pertsonak duen izena eta sexu-identitatea egokitu behar dira. Horrela, bada, inork lortzen badu erregistroko sexu-identitatea aldatzea, era berean aldatu behar du izena. Zer dela-eta bereizteko grina hau? Zer dela-eta sexua eta izena egokitzeko nahi sutua? Jendea identifikatzeko? Edo pentsatzekoa da estatuak izendatua eta izena elkarri atxikiak nahi dituela generoen arteko “erabateko bereizketari” eusteko? Adierazlearen adiera-bakartasunak bereizketaren egia ezarri eta gauzaten duen moduan, anbiguotasunak edo adiera-aniztasunak bereizketaren egia kolokan jartzen du.

Pertsonen izenei buruzko legeak eskuzabalagoak diren lekuetan, izen androginoak nahiko arrakastatsuak izan dira. Asko hedatu eta hedatzen ari dira. Agian, joera “postgenero” baten aurrean gaude. AEBn, adibidez, oso ezagunak dira Alexis, Taylor, Lauren eta beste izen androgino asko. Baina, kasu askotan doinu-aldaketaz markatzen dira gizonezko eta emakumezko aldaerak (Lieberson, Bauman & Dumais, 2000).

Gure ikerketa honetan, kontrako ahaleginaz jardun dugu, hau da, nahita edo nahi gabe, gizonezko eta emakumezkoentzat balio dezakeen izen baten hautuaz. Euskal izen guztiak halakoak direla pentsa dezake euskaraz ez dakienak edo euskal tradizio onomastikoa ezagutzen ez duenak. Eneka zenbatean hartu dute emakume-izentzat? Zelan jakin Egieder emakume ala gizona den? Galdera horri funts handiagoko galdera batez erantzun beharko genioke: zer garrantzi du gizona ala emakumea den jakiteak? Zertarako behar dugu jakin?

Elkarrizketatu dugun jende askok ez du ikusten izenetan genero-bereizketa ezartzeko inongo behar praktikorik, ez, behinik behin, beste modu batez bete ezin den beharrik. Hala ere, asko izan dira haien ustetan inozoa den lege-mugapen bati aurre egin behar izan diotenak. Azal dezagun zergatik. Euskararen kasuan, euskal izendegia egitea Euskaltzaindiaren eskuetan utzi dute instituzioek (*Euskal Izendegia*, 2001). Izendegi horrek espainiar legeak ezarritako muga guztiak gorde behar izan ditu: izen batzuk baztertu dira iraingarriak direlakoan (Aketza, esate baterako); beste batzuk hipokoristikoak edo herri-aldaerak direlakoan, Erregistroaren Legeak dioen moduan “lexikalizatu” ez direlakoan; eta jakina, erabaki da zein diren emakumezkoen izenak eta zein gizonezkoenak. Azken lan hori egiteko tradizioari eutsi omen diote: gizon-izenak dira *-o* atzizkiak bukatutakoak, emakume-izenak amaieran *-a* dutenak (Eneko/Oneka, Otsando/Otsanda...), edota tradizioz ere gizonentzat soilik edo emakumeentzat soilik erabili diren izenak era horretan arautu dituzte. Horrez gain, aranatarren *-(n)e* ospetsua jaso dute izen femeninoentzat (Ane, Julene...).

Arazoa da euskarak ez duela “egiazko generoari” legokiokeen genero gramatikal argirik. Eder izena emakume- edo gizon-izena ote da? Ezin, legez, bientzako izan.

Horregatik, izen berri gehienak arautzeko, hau da, emakumeentzat edo gizonentzakoentzat izango diren erabakitzeke irizpide orokor bat proposatu da: kontsonantez edo *-i*, *-o*, *-u* bokalez bukatutako izenak gizonezkoentzat izango dira, *-e* eta *-a* bokalez bukatutakoak, berriz, emakumeentzat. Emakumeen izenen stocka osatzeko Andre Marien izenak gehitu behar dira eta gizonezkoena biribiltzeko, *-a*

edo -e bukaera izanda ere, oso zabaldua dauden tradiziozko gizon-izenak erantsi⁹.

Baina esan dugun bezala, erakunde aditu eta ofizialen erabakien aurka oldartu da jende asko, eta beste askok, oharkabean, erabilera “okerren” bidez higatu egin ditu erabaki horiek. Horren lekuko Euskaltzaindiaren *Izendegiaren* 2001eko edizio-ko Hendrike Knörren berba hauek: «Herriaren interes biziarengatik, euskal izendegi batzuk argitaratu dira azken urteotan. Baliteke egileek borondate ona izatea, baina maiz zentzugabeko izenak hedatu dituzte zoritxarrez, hala nola Jose M. Bereciartuaren *Catalogo de Nombres Vascos* deritzanean (1977) ageri den *Eztizen*, gaztelaniazko “Dulce Nombre (de Maria)” delakoaren balizko ordaina, euskal hitz ordenari muzin izenik (izatekotan: *Izenezti*). Beste izen batzuetan garbi dago laborategiko kutsua, adibidez, *Jazki*. Deitoragarria da halaber zenbait elkarte euskaltzalek, hala nola Seaskak (...) batere irizpiderik gabeko zerrendak barreiatu izana...» Knörrek “nahasmendua” areagotu duten liburu-etako baten bat aipatzen du, eta salatu ez direla «sexu bereizketaz axolatzen». Baina kasu guztietan bestelako irakurketa egin daiteke, Knörrek berak aipatzen duen «interes biaz»: herri-sormena da hor ageri dena, jendearen ekimen nahasia eta kontrolagaitza, bizia eta bizigarria.

4.2. Generazioa

Izenek esaten digute nor den gure garaikide, nor den gure adin bereko, nor zaharrago eta nor gazteago. Izenek garaikidetzaz-zentzua eman eta belaunaldien joan-etorria adierazten digute. Izenak, arrazoi soziopolitiko eta kultural askorengatik, erabili eta ahaztu egiten dira: legeak aldatzen direlako, izen batzuek identitatezama gehiegi hartzen dutelako, edo estereotipo negatibo bati lotuegi geratzen direlako (izen nazionalistak, anarkistak, ordenako jendearenak, biblikoak, behelasekoak, baserritarrenak...), modernizazioarekin eta sekularizazioarekin batera izen berriak hedatzen direlako, masa-hedabideek eta masa-konsumoko kulturgingintzak izen kontsumigarri berriak dakartzatelako, globalizazioaren akulturazio- eta hibridazio-prozesuek izen sorta berriak ezartzen dituztelako... Faktore horiek guztiek denbora-segida zertzen dute: belaunaldien artean aldeak handiagotuz eta belaunaldikideekin identifikazioa indartuz.

Hitz gutxitan, izenek belaunaldi-zentzua sortzen dute. Ez da harrizkoa, gain-rako ondare sinbolikoen joan-etorriek ere egiten baitute gauza bera. Izenek, hortaz, laguntzen dute belaunaldien arteko aldeak areagotzen: behinolako izen zaharrak, aitite- edo amama-izenak, urritzen doaz eta gure garaiko betiko izenen ostean gazte eta umeen izenak datoz... Horrez gain, izenek “kohorte” zentzua sortzen

9. Pentsatzekoa da Andra Marien toponimoak emakumezkatat jo direla tradizioz edo ohituraz; izenek beraiek ez baitute ezer emakumezko edo gizonezkoenak izateko, fedea ere ez du halakorik agintzen. Bestalde, sailkapen horrek Herrian gertatu den iraultza onomastikoaren kausetako bat ahazten du: sekularizazioa, hain zuzen. Santu-izenak eta erlijio-kutsuko izenak alde batera uztea Euskal Herrian azken hogeita hamar urteetan bizi izan den sekularizazio-prozesu gogorraren eskutik etorri da. Toponimiak hartu du neurri batean, erlijioak betetzen zuen izen-harrobiaren papera. Eta Andra Marien toponimoak berdin izan daitezke gizon- zein emakume-izena, batez ere, erlijio-fedearrekin zuten lotura ia-ia osorik ahaztu denean.

dute: garaikideen arteko lotura bat sortzen dute. Bizi-segida bat dugu komun, ditugun izenek argi erakusten digute zeintzuk diren gure belaunaldikoak¹⁰.

Euskal kasuan generazio berriek ezaugarri berezi bat dute. Dituzten izenak euskarazkoak dira. Euskal Herrian berrikuntza edo ordezkapen onomastikoa euskarazko izenak baliatuz egin da gehienbat. Talde arteko bereizketaren logikak eta talde barneko identifikazioaren edo homogenizatzearen logikak, biek ala biek, bultzatu dute “euskalduntze onomastiko hori”. Erreferentzi taldea, bistan da, Euskal Herria izan da. Euskal Herriarekiko atxikimendua erakusteko modu bizia eta erreza izan da euskal izenen hautua. Zein izan da ordezkapenaren erritmoa eta abiada? Galdera horri erantzuteko estatistika-zerbitzu ofizialek (Eustat, Nafarroako Estatistika Zerbitzua, INE...) argitaratzen dituzten izen erabiliaren zerrendak ditugu, baita belaunaldiz belaunaldiko azterketa sakonagoek emandako datuak ere (Gorrotxategi, 2000). Ikus ditzagun hainbat datu adigarri:

1929-39 hamarkadan gehien erabili ziren izenetan lehendabiziko bostak honako hauek izan ziren: M. Carmen, Maria, Pilar, Begoña, Josefa. 1985etik 1995era joandako urteetan erabileraren arabera zegokien lekua hauxe zen: M. Carmen 117. postura jaitsi zen, Maria izenak arrunta izaten jarraitzen zuen eta hirugarren postuan zegoen, Pilar 218.ean zegoen, Begoña izenari 245. postua zegokion eta Josefari 841.a (Gorrotxategi, 2000). Jakina, gazte-izenak bestelakoak dira; Carmen, Josefa, Pilar... amama-izenak dira.

Aldaketa bera aurkituko dugu gizonezkoen izenetan: Jose (1929-39 hamarkadan erabiliena, 1985-1995 hamarkadan 63.a zen), Antonio (bigarrenetik 91.era), Jesús (hirugarrenetik 77.era), Manuel (laugarrenetik 94.era), Francisco (bosgarrenetik 98.era).

Zeintzuk dira izen horien ordezkoak? INEren datuen arabera, honako hauek dira 2005ean jaiotakoak erregistratzeko gehienbat erabili ziren izenak:

10. Esandakoa edonoren esperientzian egiaztatu ahal da; hala ere, bi proposamen: belaunaldien segida izenetan zelan zertzen den aztertzeko ikusi egunkarietako eskeletan agertu ohi diren hiruzpalau belaunaldien arteko aldeak, eta garaikidetza-zentzuari dagokionez aztertu nola eskolakideen izenak naturaltasun osoz hartzen diren “denbora gabeko izenak” balira bezala, hau da, unibertsalak izango balira bezala (unibertsalak ez direla ikasiko da denboraz, baina orduan normalak eta betikoak bilakatuko zaizkigu).

Gizonezkoentzat		Emakumezkoentzat	
Autonomia Erkidegoa	Foru Erkidegoa	Autonomia Erkidegoa	Foru Erkidegoa
Iker	Javier	Irati	Lucia
Unai	Aimar	Ane	Maria
Ander	Iker	Narora	Paula
Jon	Pablo	June	Nerea
Oier	Asier	Nahia	Irati
Mikel	Mikel	Leire	Leyre
Eneko	Iñigo	Izaro	Narora
Asier	Unai	Lucia	Sara
Ibai	Xabier	Paula	Amaia
Aimar	David	Uxue	Nahia

Iturria: INE

2. taula. Izenik hautatuenak 2005ean jaio diren umeentzat

Gehienak arrotzak edo guztiz ezezagunak aurreko belaunaldietan. Iker, mutil-txoen izenetan arrakastatsuenak, ez zen 1976-1986 hamarkadara arte agertu izen erabilien zerrendetan. Irati, 1985-1995 hamarkadan.

Erdal izenak argi eta garbi ordezkatu dituzte euskal izenek. Horrela jarraituz gero, erabat hegemonikoak izango dira. Zergatik? Identitatearen logika nagusitu da izengintzan, baina badira ere bestelako aldatze-joerak: baztertu dira izen konposatuak, nagusitu dira izen laburrak, hazi da izenen dispersioa eta izenen stocka...

Antza denez, izenak arinago higitu eta zaharkitzen dira, ordezkatzeko bizkorragoak ari dira izenen moda-zikloak (Coulmont, 2006). Zikloak laburrak eta arinak dira beraz, eta jakina, horrela izan daitezkeen izen gehiago behar da. Horrek bat egiten du “norbanakoa bereizteko” joerarekin, izenetan ere indibidualizazioa nabaria da. Nabaria da jendarteko egitura eta erakunde zenbaiten eraldaketa; garai honetako jendarte-egiturek, zabalagoak eta malguagoak izanik, ez dute izenak ezartzeko arau zurrunik inposatzen. Behinola elizak, familiak, estatuak, klaseak, ideologiak eta abarrek arautzen zuten izena hautatzea; baina erakunde horiek “aukerakoak” bide dira gure oraingo honetan eta ez diegu onartzen, “gure baitatik” pasatzen ez den erabakirik. Horrez gain, izen pertsonalagoak nahi ditugu: nork bere oldez hautatuak eta ahalik eta bereizienak (pertsona-izenak pertsona bakar baten izena izan beharko balu bezala).

Laburbilduz, honako hauek dira izen-merkatuaren joerak:

- Izen asko eta ziklo arinak: horrelako testuinguruan hautatzea zailago egiten da, gogoeta eta hausnarketa behar dira erabakitze eta ondorioz hautuak pertsonalagoak dira.

- Izendapen originalak: izen bereiziak, pertsonalak, inpaktu handikoak (esan-guratsuak, harrigarriak) baina merkeak (prezio sinboliko gutxiakoak: izen-hautuaren asmoa aise antzemateko modukoak).

Euskal izenek joera orokorren “eskakizun psikosozialak” ondo betetzen dituzte: estetikoki erakargarriak dira, inpaktu eta inbertsio arteko harreman “erosoa” dute, pertsona indibidualizatzeko indar nahikoa izanda ere, edonork ezagutuko du “zertan diren”. Nonbait, goi-modernitatearen haizeak alde jotzen ditu. Eta gainera, euskaldunak dira...

4.3. Gentilizioa

Izenen hautua eta erabilera arautzen duen hirugarren gizarte-logika “gentilizio-balioa” da: izena jendarteko identitate baten erreferente izatea. Izenaren bidez izendunaren taldea zein den agertzeak izen horren erabileraz eta balioaz asko esango digu. Izen batzuek izena hautatu duenaren ideologia zein den dioskute, beste batzuek erlijio-fedea zein den, edo hizkuntza, edo talde etnikoa, edo nazioa, edo familia...

Kultura guztietan izan dira izena emateko estrategiak eta protokoloak. Jendarte tradizioaletan modernoetan baino leku gutxiago zuten estrategiek; haietan protokoloak ziren nagusi. Askotan, estrategien eta protokoloen arteko aldea gradu-kontua baino ez da. Bai estrategietan, bai protokoloetan, leinu jatorra edo senitarte-sare zabala eraikitzea funtsezkoa izan da. Abizenak darama gaur egun betekizun horren zama: abizena da familia-izena. Baina lehengo jendarteetan izenak ere bazuen eginkizun hori. Izenaren bitartez leinu- edo familia-genealogiak eraikitzen ziren lehen; gaur, berriz, bestelako genealogiak eraikitzen dira izenaren bidez: nazioarena, kulturarena, erlijioarena...

Arestian esan dugun bezala, erreferentzia edo asmo hori antzematea nabaritasun-kontua da. Ezin dugu jakin Martin Martin den haren aita edo aitite Martin zelako, baina sumatu ahal dugu Mohamed-ek baduela erlijio edota kultura musulmanarekin zerikusirik. Izendatze-kodea nolako eskuragarria den; horra gakoa. Eta badira talde-kode mugatuak eta talde-kode zabalak, oso mugatuak eta oso zabalak ere bai. Zer dioskute Jessica edo Yerai izenek? Horrelako izenak erruz topatuko ditugu goi-klase sozioekonomikoetan? Eta “estiloko” edo “ordenako” edo “eskumako” jendearen artean?

Gizarte-klasea, bizi-estiloa, kultur erreferenteak... guztiak dira izena hautatzeari eragiten dioten faktore argiak. Izatez, gizarte-eraginak moldatutako “gustua” da hori guztia. Izena hautatzea gizarte-kategorien irizpide estetikoaren mende dago; Bourdieu-k *La distinction* lanean deskribatu zituen irizpide haien mende. Gogora ditzagun: herri-gustuak ahalik eta gutxieneko gastu eginez lor daitekeen inpaktu handiena du helburu; gustu jasoak, berriz, gastu oparoa nahiago du, inpresio estetiko landua, neurtua eta mugatua lortzeko. Kanpo-inpaktu gogorraren orde, barne-inpresio ondo landua nahiago du juizio estetiko ikasiak, hau da, gutxi batzuen eskura dagoen kodeak. Halako kode batez sortutako izenek interpretatze-lan bati esker hunkitzen dute. Laburbilduz: merke erasan versus garesti hunkitu.

Europar gizarte tradizionaletan moda-zikloak (berritu/hedatu/herrikotu/utzi/berreskuratu) geldoagoak eta difusoagoak ziren oraingoen aldean. Gizarte horietan, eta neurri batean modernoetan ere, ziklo horiek txandakutzen ziren irizpide estetikoak eta ondare sinbolikoak goitik behera zabalduz eta lerratuz: aitzindariak klase boteredunetako kideak ziren. Beraiek berritu eta goitik behera hedatzen zuten berrikuntza. Mendeko taldeak eta klaseak, berriz, kontserbadoreagoak eta aldagaitzagoak ziren. Ezarian boteretsuen “ondare sinbolikoak” onartuko zituzten. Orduan, mendekoek bere egiten dituztenean, goi-kapitalek eta ondare sinbolikoek balioa galtzen dute. Goi-klaseak ez dira berrizaleak besterik gabe, berria bilatzen dute hedatutakoak eta, batez ere, herriak bere egin duenak galdu duelako “bereizteko dohaina”; herriarena bada, ez da bereizgarria. Goitik beherako hegemonia-eredu hau ondo aztertu dute N. Elias-ek edo P. Bourdieu-k, eta izenen kasuan Besnard eta Grange ikertzaileek (1993). Baina eredu horrenak egin zuen aspaldi. Izenak ez dira menderatzaileengandik herri xumearengana isurtzen, ez dira ere sortzaile edo igorle bakar baten sormenetik agertzen.

Gaur egun ez dago merkatu onomastiko bakarra (Coulmont, 2006). Aitzitik, batzuetan elkarren aurka joka eta beste batzuetan elkarren berrikerik gabe ari diren eremu hierarkizatu asko ditugu aurrez aurre. “Kultur anitzeko” izengintza da gaurkoa. Horrela, bada, merkatu batean ondo balioetsitako izen bat beste merkatu batean batere baliorik gabekoa izan daiteke; inoiz ere, izen hark izenduna zein merkatutakoa den identifikatzeko baino ez du balio (Freyer & Levitt, 2004)¹¹.

Azkenik, aintzat hartu behar dugu izena hautatzeko orduan asmo esplizituak eta eragin oharkabeak ari direla jokoan. Izena hautatzea eta ematea ez dira beti egiten asmoz eta jakitez, sarritan “erabakitzeari eragiten dioten indarrak” ezagutu gabe behar da erabaki. Kasu horietan izendatze-jarduera “jarduera praktikoko hutsa” da, gogoetarik gabekoa (hala ere, izendatze-jarduerak gero eta gogoeta handiagoa eskatzen dute).

5. Singulartasunaren bila

Lévi-Strauss-en ustez, pertsona-izenak norbanakoa identifikatzeko, sailkatzeko eta “signifikatzeko” balio du (1964, 199). Identifikazioa bitara uler daiteke: pertsona bat beste batzuen artean bereizi edo eredu batekin (inorekin) bat egin; bietan pertsona “identifikatu” dugu (Dupâquer, 1980: 9). Izendatze-erregimen tradizionaletan bigarrena zen nagusi. Horrexegatik arrunta ziren homonimia-kasuak. Erregimen modernoetan, ostera, lehendabiziko zentzua da hegemonikoa: singulartasuna eta originaltasuna. Erregimen modernoak estatu-administrazio burokratikoekin eta indibidualismoa goratzearekin batera sortu ziren. Estatuak izendatzearen duintasuna aitakeriaz zaintzearekin batera, legerian pertsona-izena “pertsona bakana eta bereizgarria” erakundetzeko artefaktu bat dela argi ezarri du.

11. Izen konposatuak asko murriztu diren arren, agertu dira “merkatu onomastiko” batzuk uztartzen dituzten izen konposatu berriak, nolabaiteko izen mestizoak edo hibridoak. Askotan guraso eta haurren kultur askotasunaren ondorioak dira (jatorri ezberdineko bikotekideak edo adopzio-kasuak): John Ander, Lander Fernando, Ashley Naiara, Emily Ainaia, Laia Lin...

Horrenbestez, izena hautatzeko irizpideek bat etorri behar dute pertsonaren banakotasuna erakundetzearekin: pertsona bat, izen bat. Baina izenak pertsonak adina ez direnez, abizenekin konbinatu behar dira pertsona bakana adierazteko eta bereizgarriak izateko.

Oro har, izengintzaren joera nagusia indibidualizatze aldera doa: originaltasuna, eufonia, indar estetikoa, eta abar bilatzen badira ere, pertsonaren “singular-tasun ezabaezina” aldarrikatzeko izaten da. Adibide onak dira harreman telematikoetan hautatzen eta erabiltzen diren ezizenak (*nicks*), guztiz singularrak izan behar omen dute izen horiek¹².

Euskal izenetan bat egiten dute batetik euskal kultura eta identitatearekiko atxikimenduak eta bestetik norberaren singularitasuna indartzeko joerak. Maider edo Auxkin izenak, esaterako, Maria edo Martin izenak baino nabariagoak dira europar izenen multzoan eta, ondorioz, pertsona “singularrago” etiketatzen dute, baina aldi berean eginkizun identitarioa betetzen dute: euskal talde-kategoria edo labela ezartzea.

Indibidualizatu eta bereizi nahiak izengintzako “sormena” eta “berrikuntza” bultzatzen ditu: kategoria arteko bereizketaren bila ari direnentzat, kategoria batetik besteetara hedatu den izenak ez du bereizgarritasun nahikorik (alegia, Nerea edo Ainhoa zenbat eta hedatuago Euskal Herritik kanpo, orduan eta euskal kategoria bereizteko indar gutxiago), bereizgarritasunari eusteko izen “endemikoa-goak” bilatuko dituzte, eta ondorioz, kategoria barruan izen berriak agertuko dira eta izenak ugariagoak izango. Labur esanda, izen “prototipikoagoak” bilatuko dira (horrela, bada, prozesu berak azalduko liguke erdal eufoniatik urruntzen diren izenen agerpena, erdaldun petoak nekez ahoskatzen dituen horiek: Sohalge, Zoihartze, Aiert...). Izen “prototipiko” horiek ez dira batere tipikoak, arrotzak izan ohi dira euskaldun publikoarentzat ere (“prototipikotasuna”, bistan da, izenena bainoago hauta-irizpideen ezaugarria da). Izenen berriak belaunaldien arteko aldeak handiagotzen ditu: lehen zaharren eta gazteen izenak bereizten genituen, orain zahar, heldu, gazte eta haurren izenak bereizi ahal ditugu.

Erantzun diezaiogun, bada, hasieran egin dugun galderari: zer esan nahi du Alaitz izenak? Erraz esanda, “XXI. mendeko euskal gaztea naiz”. Horrela izendatzeak pertsona erakutsi, bereizi eta sailkatu egiten du.

12. Albo batera utzi dugu izenen eufonia, edo itxura estetikoa, jendartearen baliotsu eta erakargarri izateko faktorea izan daitekeen arren. Gustuak, irizpide eta arau estetikoak gizarte anizkUNETAN anitz badira ere, hainbat ezaugarri estetiko orokor seinatu ahal ditugu izengintzan: izen bikoitz edo hirukoitzak murriztu dira oso, izen laburrak eta ozenak nahiago ditugu nonbait, bokal-talde batzuk nonahi agertzen dira (adibidez, /ai/ izen andana ikaragarrian topatuko dugu: Haizea, Araitz, Unai, Maider, Alaitz eta abar euskal jatorriko izenetan; Haimar, Sarai, Yeray, eta beste asko erdal jatorrikoetan; /ier/ edo /er/ taldeak arrakasta handia du bukaera gisa: Asier, Xabier, Oier, Iker, Maider, Ander...) Bestalde, Amaia eta Aitor izen literario eta aitzindarien arrakasta ama eta aita hitzekin duten antzari zor dakiok. Horrez gain, izen batzuek izen adar sorta batzuen jatorria dirudite (Liebersson, 2001): Amaia izenetik Amagoia, Amaur eta beste, Maite-tik eta (Maria-rekin duen antza ahaztu barik) Maider, Maitane, Maiteder, Maialen...

6. Norberaren autonomia izena hautatzean

Ikerketa honetan abiapuntu dugun Bourdieu-ren ekintzaren soziologia oso da anti-intelektualista. Soziologia horrek ez du bere egiten behatzaile erreflexiboaren begirada, beretzat nahi du jokoan ari denaren begirada praktikoa, batzuetan irreflexibo, beste batzuetan erreflexibo ari denaren begirada engaiatua. Aktorea, hots, jardulea, praktikan engaiaturik bizi da ezinbestean. Bizi-praktikek aukera gutxi eskaintzan diete jarduleei euren jardunekiko harrotzeko, haietatik urruntzeko eta euren gainean gogoeta patxadatsua egiteko. Jardule horiek ezin dira izan euren praktiken behatzaile sosegatu eta buruhotzak. Horregatik, Bourdieu-k gorputzari eta ekintzaren oharkabeko atondurei eman zien garrantzia (berezi menderakuntza ulertzeko orduan) (Corcuff, 2003: 39)¹³.

Baina Bourdieu-k ez du bazterten ez juizio kritikoa (hau da, berari eragiten dioten faktoreak antzemateko eta haiei aurre egiteko gai den juizioa), ezta ekintza autonomoa ere. Gogora dezagun Bourdieu-ren lanak oinarri izan dituela bai “harremanak” lehenesten zituen filosofia bat (Cassirer-en antisubstantzialismoa), bai “ekintza” balioesten duen teoria orokor bat ere. Teoria horrek balio handia ematen die jarduleen gorputzean eta jardueraren inguruko egituretan dauden gaitasunei eta aukerei (Bourdieu, 1997: 7).

Baina zer-nolako agenteaz ari gara? Jendartean ohi denez, izaera askotako indarrak bildu egiten dira ekintza-ildo batera, bat-egite horri “subjektu-tasuna” egotziz (zerbait edo norbait dela egotziz) agente-izatea onartzen zaio, handik gero ekintza-ildo horretan ari direnek esan dezakete: “gure praktiken eta ekintzen bidez geure burua horrela edo hala eraikitzen dugu”. Alegia, pentsa dezakete euren burua eraiki dutela euren baitatik, euren oldez eta gogo hutsez. Ahaztu ahal dituzte aurretiaz jokoan ari ziren indarrak, subjektu bilakatuko zen ekintza-ildoaren sortzaileak: aurre-egitura eta aurre-atondura naturalak eta kulturalak, diskurtsiboak eta materialak.

Hala ere, jendarteko sistemak arau bakar baten inguruan eraikitzen ez direnez, ez dago ekintza-logika bakarra eta subjektuek hainbat eta hainbat logika ezberdin kudeatu behar dituzte. Horrexegatik ezin da inor haren rolek in berdindu, ezta haren norberatasuna gizarteratze-prozesuetara murriztu ere. Logika horiek zatikatu dute behinola baturik eta bakuna irudikatu zen gizartea. Gizartekideek arauak barneratzea zen lehengo gizarteratzearen helburua, oraingoan, berriz, joko estratetikorako kideak gaitzea da nagusi (Goffman-en *face work* horrek jokaera estratetikokoan ondo gaitutako kideak sortzea du helburu). Horrenbestez, gizarteratzea ez da dagoneneko gizartekideek ordena egonkorra bere egitea jokatze eskema kultural batzuen bidez (jarrerren bidez, alegia), oraingo honetan gizarteratzea gogoeta erreflexiborako gaitzea da, hau da, interpretaziorako eta kontu-ematerako

13. Corcuff-ek «kontzientziaren eta erreflexibotasunaren ekonomia praktikoa» deritzo egoeren arabera moldatzen den erreflexibotasun pragmatikoari buruzko soziologiari (Corcuff, 2003: 42). Halako soziologia pragmatiko baten adibideak, honako hauek dirateke: «ekintzaren baldintzetara egokitutako praktika erreflexiboari buruzko» Lahire-ren ikerketa (1998), gorputz automatismoak bereganatzeko aktoreak egin beharreko lan erreflexiboaren gainean Faure-k egindako lana (2000), Kauffmann-en «etxeko ekintza» izeneko teoria. (1997). Ildo horretan ere, ekintza-erregimenen soziologia dugu (Boltanski eta Thevenot, 1991).

subjektua eskuduntzea. Subjektu edo kide hori ez da aritzen aurretiaz ezarritako kodeak eta ordena ostera berregiten, aitzitik, egoeran egoerako sortu behar ditu.

Dubet-ek eta Martucelli-k diotenez (1998), gizartea zatitzea eta ekintza-logika ugaltzea “Modernitatearen egitarau instituzionalaren” bukaeraren sintomak baino ez dira. Homogeneotasun instituzionalak lekua utzi dio norberaren esperientziari, ororentzako arau eta rolek egoeraren arabera estrategia partikularrei. Eredu instituzionalak arauzko izateari utzi eta aukera bihurtu dira. Oro har, instituzio-galtze horrek pertsona arteko harremanak egin ditu jendarteko bizimodu berrien protagonista. Lehen guztiz soziologikoak ziren harremanak gero eta psikologikoagoak dira: gizarte-eraginak araututako rol-ibilbidea zena, gaur jendarteko harremanetan kudeatu behar den norberaren esperientzia da. Ekintza-erregimenak askotarikoak eta aldakorak dira: balio, jokaera, objektu eta legitimitate propioak dituzten mundu nabar eta koskatsuak.

Aspaldian, hortaz, erakunde- eta talde-arau zorrotzek gobernatzen zuten izendatzea. Gaur, ostera, hainbat merkatutan zatikaturik dagoen moda-objektua da izena. Erakunde orokorren ordean, bestelako gizarte-endarrek arautzen dute izengintza; ezarian, gurasoek euren eskubidetzat jo dute umeen izenak aukeratzea eta erabakitzea. Gurasoak “izendatzearen subjektu” bilakatu dira, izendatzeko eskumena erakunde-arauetatik gurasoen esperientzia eta erabakimenera igaro da (Offroy, 2001). Egia esan, gizarte-eragin oro psikologizatu egin da, eragin-iturriak asko ugaltu direlako. Horrexegatik ere, hau da, ekintza-erregimen asko dugulako, izena hautatzea pertsonalagoa, subjektiboagoa eta hurbilagoa da (Dupâquer, 1980: 14).

Baina zatikatzea ekintza-erregimenen baitara ere heldu da. Ekintza-erregimenak askotarikoak dira jendarte-eremu guztietan erresistentziak eta dibergentziak daudelako. Berezkotasuna jendearen ezinbesteko ezaugarria omen da, bestela ordenak inolako aldaketarik gabe iraungo luke. Ezaugarri hori ahaztea kritikatu zaio Bourdieu-ri, eta menderakuntzaren iraupena azpimarratu duen orori, eta ezaugarri horixe da, hain zuzen, De Certeau-ren abiapuntua “erresistentziaren mikrofisikari” ekitean (De Certeau, 1996).

Ezagun denez, De Certeau-k “egiteko arte arruntetan” sortzen den berezko erresistentzia azpimarratu nahi izan zuen. Arte horiek ez dute mintzaira propiorik, ezin dute euren buruaren konturik eman eta ez dira gai gogoeta eta berbaldi propioa egiteko, baina arte horiek dira eguneroko bizitzaren jakintza, eta bizimodu arruntetan modu askotara agertzen dira trebetasun praktiko horiek. Haietan ikusten du De Certeau-k “erresistentziaren erregimena”: erresistentziari buruzko diskurtsoak eta gogoetek ekintza arautzen ez duten abagunetan egiteko moduei darian erresistentzia agertzen da, egiteko modua da erresistentzia hori, ez pentsatzeko modua, diskurtso ideologikoetatik libre dabilen berezko ekimena baizik. Adibidez: lapurreta txikiak, merkatariak bezeroaren onerako egiten dituen hanka-sartzeak, enplegatuek elkarri zuzitzen dizkioten ordu galduak... horrelako ekintzek ez dute diskurtso bat osatzen, ez dira ageriko erresistentzia ideologizatu eta gogoetatsu baten emaitzak: ez dira, esaterako, bizitzaren merkatu bihurtzearen aurkako ideologia baten erresistentzia-zantzuak, baina merkatu-harremanei garapen eroso aragozten diete. Keinu horiek ez dira eraz irakatsitako azturen emaitza, aitzitik,

subjektuek, berezko eragileak diren aldetik, “berez” duten oldezkotasuna da. Ekintzaren diskurtso gabeko barren horretan erakundeen botereari aurre egiten ikasten da. Gogora dezagun, maila hori, jendarteko harreman maila guziak bezala, etengabeko *tour de force* askoren bidez instituitzen dela, horien kontra mugitzean sortzen da “erresistentzia arrunta” (Dobré, 2002).

Dobré-ren “erresistentzia arruntaren” teoriak (*arrunta* hitzaren zentzu bikoi-tzean: denen ezaguna eta estatus gutxikoa) argitu ahal digu zertan den izena hautatzeko eskubideari jarritako mugak onartzeko erresistentzia. Erresistentzia arrunt hori bizitza arruntari darion erresistentzia da: antolatu gabeko ekintza pertsonal ezberdin askoren multzo heterogeneoak. Ahalegin horiek “merkataritza-sistemak” kolonizatu (nahi) duen eguneroko bizimoduan “autonomia-guneak” sortzen dituzte (Dobré, 2002: 311).

Horrenbestez, jendeak sistemak eta erakundeek bere hartan jarrai dezaten lagutzen du, baina ez itsumustuan; eguneroko bizitza praktikoak badu berezko logika eta horrek jarraipenari mugak eta eragozpenak jartzen dizkio. Erresistentzia arrunteko ekintza gehienak diren-direnean jotzen ditu jendeak, hau da, aitor du erresistentzia-ekintzak direna; baina, hala ere, ez ditu diskurtso batez zuritzen edota legitimatzen. Horrela, bada, diskurtso adituaren orobatzea, etengabeko zaingoa eta kontrola higatzen ditu erresistentzia arruntak, eta hortxe dute sorleku erresistentzia kolektibo antolatu guztiek.

Agerikoa da gaurko jendarte-bizitzaren ikuskizun publikoan eta norberaren bizitzan jatorri ezberdineko estrategien arteko zeingehiagoka. Estrategia batzuk taktika anonimoetatik agertu eta haietara itzuliko dira, horien bidez jendeak bere buruaren gain hartzen du, ez osotasun unibertsal antzera agertzeko (ideologiaren eginkizuna da hori), baizik eta haren ekintza-eremuari dagokion osotasuna bereganatzeko, alegia, ekintza-eremu horretan subjektu gisa agertu da jendea eta eremuaren osotasunarekin identifikatzen da, hots, nagusitasun partzial hori lortuz subjektu eragile izan nahi du.

Hauxe bera da, laburbilduz, izena hautatzearen kasuan ikusi ahal izan duguna. Izena hautatzeari hainbat logikak eragiten diote: kalkulu estrategikoarenak, gehienetan debekuen aurkako erresistentzia gisa agertzen denak; jendarteko inertiaren logikak, nonbait *habitusari* dagozkion logiken multzoak (norbera gizarteratzearen logikak eta gizarte-kohesioaren logikak); emozio erreaktiboaren logikak, baita ekintzaren asmo proaktiboaren logikak ere.

Logika edo hauta-irizpide horiek “ekintza-erregimenaren” arabera egokituko dira: pasioa, kalkulua, jendarte-inertzia, erresistentzia, senide arteko negoziazioa, mota guztietako transakzioak (erakundeekikoak barne)... Ikerketa honek erreakzio-kasuetara jo du, kasurik berritzaileenak, baina ez, nahitaez, “erreflexiboak”, ezta kapital (linguistikoa, kulturala, ideologikoa) handiena dutenak ere¹⁴.

14. Dena den, egiaztatu ahal izan dugu kapital hori zuzenki lotzen zaiola subjektuaren ahaleginari, hau da, kapital handiko pertsonak biziago eta tematiago ahalegintzen dira Erregistroari edo Euskaltzaindiari aurkeztutako helegite eta kexuek arrakasta izan dezaten. Esan bezala, kapitalak jendea “eskuduntzen” du eta izena hautatzea, azken finean, botere-arazoa da.

Elkarrizketatu ditugun pertsonak eurek hautatutako izena jartzeko orduan mugak, eragozpenak eta murrizketak topatu dituzte. Kasu gehienetan, hasierako ustekabe eta harridurari haserrea jarraiki zaio. «Zer dela-eta esan behar digute gure haurrari jarri behar diogun izenak zein izan behar duen?» «Nor dira gure haurrari zelan deitu behar diogun esateko?» Horrelako galderek izena gurasoen eskubidea dela suposatzen dute, ez dela ohitura bat, ez dela izapide burokratiko hutsa, ez dela gizarteak arautu duen pertsona eratzeko erritu bat... Eskubidea omen da. Gurasoena omen, eta haiei dagokie soil-soilik.

Kanpotik ikusita, hau da, ikertzailearen edo adituaren begietatik, hautapenaren defentsa “jendarteko eragina” bereganatzearen ondorioztat jo daiteke: jendarteko eraginak inposatzen du, subjektuaren “borondatearen bidez”, hautatzeko irizpide oro. Hala ere, pertsonak bestela bizi du hautatzea eta hautatzeko irizpideen eragina. Pertsona horien ustez, izena hautatzea guztiz pertsonala izan da, erabakia kanpo-eraginetatik aparte hartu dute edota eragin horiekin distantzia nahikoa harturik. Badakite eraginak hor direla, baina haien ustetan oldez hartu dute azken erabakia, eragin horiek ez baitute izena hautatzea erabat bideratzen. Autonomiarenganako uste hura indartu egiten da erakundeen debeku edota murrizketekin topo eginez gero. Orduan hautatutako izenak bestelako izaera hartzen du: norberaren autonomiaren ikur bilakatzen da. Eta erreklamazioetan arraskatarik ez duenean, jendea, arau- eta lege-aparatu eta erakundeak direnak direla ere, muga horiek gaindituz, bereari eusteko gai da:

- Izenak arautzen dituzten erakundeen ustez, gizonezkoentzat diren izenak emakumezkoentzat erabiltzen dira. Eta alderantziz ere. Lehendabizi, bide ofizialetatik egiten dira erreklamazioak: ahal den guztia arakaturik, izenari eusteko informazioa bilatzen da, hizkuntza batean edo, berdin dio zeinetan, izen hori emakume-izena dela egiaztatze aldera. Horrelako erreklamazioek kale egiten dutenean, beste jite bateko arteak erabiltzen dira. Ohikoena izenari Mari aurre-egartzea da (horrela, bada, izena bikoiztu egiten da: izen ofiziala, Miren Iraitz, esate baterako, eta benetakoa, Iraitz). Inoiz ere, Erregistroko langilea engainatzeko edo limurtzeko ahaleginak egiten dira. Bestetan Familia Liburuan “zuzentzen” da izena (Erregistro ofizialean izen bat geratzen da ehortzirik, beste arlo guztietan hautatutako izena agertzen da: eskolan, osasun-zerbitzuan, aurrezki-kutxetako kontuetan...)
- Izen “ez-egokiak” eta “iraingarriak” erabiltzen dira. Kasurik ezagunena Aketza da. Bistan da gure gaurko hiri-jendarte honetan hitz horrek ez duela baserri-jendartean izan zuen/zezakeen konnotaziorik: Aketza deritzon jendeari inork ez dio irainik egiten haren izena erabiliz deitzen dion bakoitzean. Kasu honetan ere, aspaldiko debekuen antzera, erakundeen murrizketek izenak ugaltzeko baino ez dute balio izan. Izen bat hilik datza agiri ofizialetan, beste bat bizirik jendearen ahotan.
- Izen berriak asmatzen ditu jendeak, inoiz onartutako irizpideen arabera, inoiz irizpide horiek guztiz baztertuz. Hala edo nola, jendeak “euskal izenak” asmatzen ditu. Jaso dugun adibiderik adigarriena Malene da. Izena, bistan da, Malena izenetik eratorri da, aranatarren *-(n)e* atzizkia erabilita (Jon maskulinoetik, Jone femeninoa egin den bezala, edo Ana erdal izena (?) Ane euskaldundu den modura). Bestalde, errez eskura daitezke izen berriak

toponimian arakatzuz (edozein leku-izen pertsona-izen bilaka dezake jendeak, izenaren erakargarritasun estetikoa izan ohi da gakoa, eta ez parajearena edo hitzaren etimologiarena), edota natur fenomenoaren pentzura (esaterako: Hodei, Haizea, Ibai, Hodeiertz...), edota ideologiak ondutako “onda-reetara” joaz (Hizkuntza, Jare, Iraultza...). Izen komun horiek dira erdaldunek euskal izenek “esanahia” dutela uste izatearen arrazoia.

Izendatze-praktika horien ondorioak aztertuz gero, konturatuko gara “izena hautatzearen askatasunari jarritako mugak” behin eta berriro gainditzen dituela jendeak: badira izen androginoak (Araitz, Iraitz, Amaiur, Nagore, Hodei, Amets, Aritza, Maren ...), ustez iraingarriak izan daitezkeenak (Aketza, Oinaze...), “hautatu” dituztenek *ex novo* asmatuak (Malene) edo irizpide eta arau ofizialei jaramon egin gabe hautatu eta erabiliak (esaterako, Ahetze, Euskaltzaindiaren arabera neska-izena behar lukeena, mutil baten izena da).

Esan dugun bezala, hautapen berezi bati buruz jardun dugu. Berezia izena geroago aldatzea onartzen duten inguruetan ere, lehendabiziko izendatzeak aparteko izaera baitu; izan ere, pertsona jendartean izaten hasteko lehendabiziko erabakia da, norbait izateko bidearen atalasea. Ingurukoek hartu behar dute erabaki magiko/sakratu hori; ezin da huts egin. Oraindik ere, arrunta da izenak izendatzearen izaerari nola edo hala eragingo diola sinestea. Erakundeek sinesmen hori jaso dute araudietan: pertsonaren jendarteko izaerari kalte egin diezaioketen izenak debekatu egin dituzte, pertsona arteko harremanetan erabiliko den “aurpegi-markak” nolakoa behar duen arautu egin dute... Egia esan, arau horiek ez dute herri-erabilera zedarritzen, baina elkarrekintza publikoak eta ofizialak indar betean arautzen dituzte.

Dena den, izena hautatzea lege-testuingurua baino testuinguru zabalago batean kokatu beharra dago. Oro har, umeak ondare urria dira: Euskal Herriak, denok dakigun bezala, jaiotza-tasa eskasa du, Europako txikiena nonbait. Gurean, umea izatea asmoz eta buruz erabakitzen da: noiz, nola, zertarako, zergatik... Ez dira isilpeko kontu oharkabeak. Nolakoa izango da ume hori? Non haziko da? Zein izango dira haren hizkuntza, hezkuntza, balioak...? Bistan da, mundu guztiak ez du gogoeta sakonik egiten, baina, oro har, seme-alabak aurretiaz ondo taxututako proiektuak dira.

Indibidualizazioak bizi duen jendarte batean ez dago “jainkoaren eskurik”, ez “biologiaren halabeharrik”, ezta gizarte-inposiziorik ere, gurean ama-aita izatea hautazko kontua da. Subjektuek erabaki behar dute guraso izango diren ala ez, beraiek planifikatu behar dute enpresa hori (euren kontsumo eta bizi-estiloa kudeatzen duten bezalaxe). Haurra gero eta serioago pentsatu behar den proiektua da; ezperen, nork bere erabaki horren ardura osoa izango duelako (ama edo aita dena “berak nahi izan duelako” da ama edo aita). Proiektuaren xehetasunak ere pentsatu beharreko kontuak dira. Izena ez da horietan txikiena. Alde horretatik, beraz, izena ondo pentsatuta eta negoziatuta hautatu behar da, ez edonola, asmoz eta jakitez baizik. Izenaren eufonia, esanahi etimologikoa, identitate edo jatorri kulturala eta linguistikoa, originaltasuna, hurbiltasuna... ezaugarri horiek guztiak hartu behar dira kontuan artez hautatzeko. Beti ez da modu esplizitu batez eta intentzio argiz egiten, baina gurasoek badakite zer dagoen jokoan, oso dira

jakintzaren gainean. Bourdieu-k “jarrera naturala” zeritzonarekin dihardute, alegia, jokoan dagoena zer den ondo jakinda baina zuzeneko jakintza praktikoa batekin.

Hala ere, joko-arauak aldatzen ari dira: gero eta gehiago eskatzen da “laguntza berezia eta aditua” (horren lekuko izenei buruz argitara ematen diren liburu sorta handia). Naturaltasun praktikoa galtzen ari da joko-eremu honetan; izenena ere eremu berezitua eta arroztua bilakatzen ari da eta, hala izanik, pertsonak egoera anbiguoan jardun behar dute: batetik, erabaki pertsonala hartzea behartuta daude, ez dabil hor lehengo erakunde irizpide itxirik, baina, bestetik, erakundeek hainbat muga jartzen dute, kasu gehienetan, gainera, jendeak ez du muga horien berririk. Hau den hau egiaztatu dugu gure ikerketan: gizarteko *habitusaren* eragina argi erakusten duten irizpide zenbaiten arabera izena hautatu ondoren, gurasoek erabaki psikologizatu hori defendatuko dute erakunde araugileen kontra, horrela ere, erakunde haiei izendatzeko eskubidea arautzeko legitimitatea ukatuko diete.

Bibliografia

- Alford, R. D. (1988): *Naming and Identity: A Cross-Cultural Study of Personal Naming Practices*, HRAF Press, New Haven, Conn.
- Barthes, R. (1972): *Mithologies*, Paladin, Londres.
- Besnard, J. (2007): *La côte des prénoms 2007*, Michel Lafon, Paris.
- Besnard, P. eta Grange, C. (1993): “La fin de la diffusion verticale des goûts? Prénoms de l'élite et du vulgum”, *L'Année sociologique*, **43**, 269-294.
- Besnard, Ph. (1979): “Pour une étude empirique du phénomène de mode dans la consommation des biens symboliques: le cas des prénoms”, *Archives européennes de sociologie*, **XX**, 343-351.
- Bourdieu, P. (1980): *Le sens pratique*, Minuit, Paris.
- , (1997a): *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*, Anagrama, Barcelona.
- Bozon, M. (1987): “Histoire et sociologie d'un bien symbolique, le prénom”, *Population*, **42**, 1, 83-98.
- Certeau, M. De (1996): *La invención de lo cotidiano I, Artes de hacer*, Universidad Iberoamericana, Mexiko.
- Chalanset, A. eta Danziger, C. (1994) (zuz.): *Nom, prénom. La règle et le jeu*, Autrement-Séire Mutations, 147, Paris.
- Corcuff, Ph. (2003): *Bourdieu autrement, fragilités d'un sociologue de combat*, Textuel, Paris.
- Coulmont, B. (2006): “Le choix du prénom”, in <<http://coulmant.com/blog/2005/09/13/sociologie-des-prenoms>>.
- Desplanques, G. (1986): “Les enfants de Michel et Martine Dupont s'appellent Nicolas et Céline”, *Économie et statistique*, **184**, 63-83.
- Dobré, M. (2002): *L'écologie au quotidien. Éléments pour une théorie sociologique de la résistance ordinaire*, L'Harmattan, Paris.
- Dubet, F. eta Martucelli, D. (1998): *Dans quelle société vivons-nous?*, Seuil, Paris.
- Dupâquer, J.; Bideau, A. eta Ducreux, M.-E. (1980) (eds.): *Le Prénom, mode et histoire: entretiens de Malher 1980*, École des Hautes études en Sciences Sociales, Paris.
- Eco, U. (1974): *La estructura ausente*, Lumen, Barcelona.
- , (1977): *Tratado de Semiótica General*, Lumen, Barcelona.
- Euskaltzaindia (2001): *Euskal Izendegia*, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz.

- Evans-Pritchard, E. E. (1971): "Les noms de personnes chez les Nuer", *La Femme dans les sociétés primitives et autres essais d'anthropologie sociale*, Payot, Paris.
- Freyet, R. G. Jr. eta Levitt, S. D. (2004): "The causes and Consequences of Distinctively Black Names", *The Quartely Journal of Economics*, **119(3)**,767-805.
- Galland, O. (2004): "Le prénom un objet durkheimien?", in M. Borlandi eta G. Busino (ed.) *La sociologie durkheimienne: tradition et actualité, à Ph. Besnard in memoriam- Revue euroéenne des sciences sociales*, XL, 129, 129-134.
- Glerget, J. (1990) (zuz.): *Le nom et la nomination. Source, sens et pouvoirs*, Érès, Toulouse.
- Gorrotxategi, M. (2000): "Evolución del nombre de pila en el País Vasco peninsular", *Fontes Linguae Vasconum*, XXXII, **83**, 151-168.
- , (2007): "Amada, Maite, Maria Teresa. Tres nombres y un destino", *Aunia*, **18**.
- Lévi-Strauss, C. (1964): *El pensamiento salvaje*, FCE, Mexiko.
- Lieberson, S. (2000): *A Matter of Taste. How Names, Fashions, and Culture Change*, Yale University, New Haven.
- Lieberson, S.; Baumann, S. eta Dumais, S. (2000): "The inestability of Androgynous Names: The Symbolic Maintenance of Gender Boundaries" in *American Journal of Sociology*, **105(5)**, 1249-1287.
- Mauss, M. (1960): *Sociologie et Anthropologie*, PUF, Paris.
- Offroy, J. C. (1993): "Le Choix du prénom", *Hommes et Perspectives*, Marseille.
- , (2001): "Prénom et identité sociale. Du projet social et famial au projet parental", *Spirale*, **19**, 83-99.
- Putnam, H. (1984): "The meaning of meaning", in H. Putnam, *Mind, Language and Reality*, CUP, Cambridge.
- Simmel, G. (1911): "La mode", *Philosophie de la modernité*, Payot, 1989, Paris.
- Strawson, P. F. (1976): "Sobre la referencia", in G. Parkison (arg.), *La teoría del significado*, FCE, Mexiko.
- Zonabend, F. (2001): "Prénom, temps, identitéw", *Spirale*, **9**, 41-49.

